


---

## LAGUNTZEN

---



Joan zan azillaren erdian, DEIAeguneroko izparrin-gian, niretzat onbidekoa izan zan barri bat irakurri neban: Jabetzadun Iru Euskal-errialdeetako Aldundiak eta Eusko-Jaurlaritzak milla milloi emon dabezela Irugarren Munduari laguntzeko eta bide orretatik laguntza emoten dabilzan erakundeai bi edo iru milloi eskiñi dautsezala.

Gai oneri buruz neure lagun bategaz berbetan nengoala arek auxe esan eustan: Konturatu zaite eta ikusi, Jabetzadun gure Alkartea, ez Irugarren mundurako bakarrik, emengo gizarte-bearrizanetarako be laguntzen agertzen dala, ebanjelio-giroan.

Eta au izan zan nire erantzuna: Bai, gizona, kristai-ñau-maitasun orren eta laguntzaren bitartez, aurkitu dagigula gure Jaungoiko ona ainbeste gogorkeri ta okerkeriren artean.

Lau egun geroago, "Zuzendariari eskutitzak" saille-an, gure giro onetan agertzen dan egunkari baten, berezale batek auxe esaten eban: "Ori ondo dago, baiña geure gauzak, geure arazoak, lan-sariak eta olakoak aztertu bear dauz lenengo Eusko Jaurlaritzak".

Oneri erantzuna emoitea ez da gaitxa: "Gauza biak egin leitekez" "Oneik egin bear dira, areik itzi barik" diñoan esaldia betetuz.

Onena litzake, lenengo Jaungoikoaren bideak artu eta berari biotz-maitasuna agertzea, orrelan geuri dago-kiguzan gauzak obeto urten dagien.

Orrez gaiñera beste au be jakin bear dogu: Lendakari orde dan Azua jaunak langintzan korapillo-tsuak diran arazoetarako 30.000 milloi lortu dauzala. Diruketarako Eusko Jaurkideak jo-muga onen ardurea agertzen dau.

Jaungoikoaren maitasunak argi eskatzen dau urko lagunari laguntzea, eta ondo dakigu bide orretatik ez doan erlejiñoa ez dala benetakoa, Santiago Apostoluaren idazkian argi ta garbi irakurten dan lez.

Poztuten gara, orretan beintzat, gure Jaurlaritza bide onetik joateagaz.

LETONA'k

### **EUSKERAZALEAK (25 URTE)**

**OSPAKIZUNA: BAGILLAREN 20'an**

**BERBALDIK: 15'etik 19'ra ESKOLAPIOETAN (BILBAO'n)**

**(EGIN IRRINTZI ETA AURRERA)**